



2006rako Udal Aurrekontuak Gehigarri berezia. 2-5 orriak

4.568.480 euro inbertsiotan 2006garren urterako

Inbertsio nagusiak: Sandiusterri haunditzea, Zinkoenea berritzea, kiroldegian teilatua berritzea, etxebizitzak egiteko lurra erostea eta Arrigoipeako (St. Barbara) urbanizazioa.

HERNANIKO Udalak eta bi patronatuek badituzte 2006rako aurrekontuak. Joan den asteazkenean onartu zituzten Plenoan gobernu koalizioako hiru alderdien eta PSE-EEren baieztok botoekin. PP abstentitu egin zen.

Alkatearen esanetan, aurrekontu jarraitzaileak dira auzoak berritu eta zerbitzuak hobetzeko konpromisoari eutsi egiten diotelako, eta zenbait partida, ur parkearena adibidez, fasez fase finantziatuko diren proiektuentzat direla-

ko. Oposizio talde nagusiarentzat ere konfiantza merezi duten aurrekontuak dira, alde sozialean zer hobetua ikusi arren. PPK ere akordiorako puntuak aurkitu ditu zenbait gaietan.

Bildu Hernanik oso des-

berdin ikusten ditu gauzak. Beren hitzetan, hasteko, ez dira aurrekontu demokratikoak sektore politiko haundiena baztertu egin delako. 2006rako inbertsioak % 25 igota, BHK hauteskunde usaia hartzen die aurrekontuei. ||

❖ TXISTULARIAK Musika Eskolako txistulariek Kontzertua bihar

Musika Eskolako txistulari taldeak (Jon Ansorena, Iker Apaolaza, Patri Arozena, Iñaki Eguren, Haritz Ezeiza eta Eduardo Lizarraga) kontzertua emango du bihar, Eguberri eguna, 13:00etan, Udaletxeko arkupeetan. Normalean jotzen dituzten kantak eta Gabonetakoak izango dira. Kontzertuak 40 minutu inguru iraungo du. ||

❖ ZAHARREN EGOITZA Olentzeroren bisita

Olentzerok bisita egingo du gaur Zaharren Egoitzara, arratsaldeko 16:00ak aldean. 17:00etan Gabon kantak dituzte. ||

❖ ZOZKETAK AEK-k mariskada zozketatuko du gaur

AEK euskaltegiak mariskada zozketatuko du gaur. Lehenik errifak saltzen ariko dira 12:00etatik aurrera eta 18:00etatik ilunabarrera arte. Ondorenean, zozketa izango da.

Bi soldaten zozketa

AEK-k urtero ateratzen du errifa bi soldata zozketatzeko. Egunotan hastekoak dira saltzen. Errifak jartzen du ONCEko apirilaren 7 eta 8ko zenbaki berak dituztenak sari-tuko direla, baina, jakitera eman dute apirilaren 7 eta 9ko zenbakiak hartuko direla kontutan. ||



Olentzerok opari asko eman eta muxu asko jaso zituen iaz.

Olentzero Hernanira bidean da

OLENTZERO Hernanira bidean da, gaur zita bat baino gehiago izango baititu bertan. Goizean, ikastetxeetako taldeek aterako dute pasiatzera eta arratsaldean herriko talde ugariaren eskutatik pasako da. Arratsaldean, berriz, Baserriz baserrikoa, Parrokikoa, Olentzero Konpartsakoa eta Ereñotzu auzokoa aterako dira eta Musika bandak eta Kantuz abesbatzak kontzertua eskaintzekoa diote Milagrosan. Olentzero joanda gero ere, Hernanin izango dira gaztetxo-eneek ondo pasatzeko ekitaldiak egunotan.... 10-11 orriak



Telemar
ANTENAK
Itxastele, S.L.

TELEBISTA DIGITAL TERRESTRE BERRIA
jada Hernanin da.
Eskatu aurrekontua eta montajea!!

Espezialistak Tb Digital Terrestrearen antenak jartzen eta egokitzen.
TB antena parabolikoen instalazioa, Kolektiboak eta bakarkakoak, Teledistribuzioa, Telefonía mugikorra, Mantenua

Telebista Digital Terrestrea

Telemar-Itxastele - Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99 - Fax: 943 33 00 60

Asun Esnal
Bitxigintza

Eguberri on!

Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943 33 04 78

joyeria artesanal
Enkarguzko lanak, zilarra eta urrearekin.

Bitxien konponketak egiten ditugu.

IRUBIDE JATETXEA

Enkarguzko janak
Gordetako jantokia
Eguneko menua
Asteburuko menua
Karta

IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - ☎ 943 552 480

2006rako Udal Aurrekontuak - Inbertsioak

Sta Barbaran Arrigoainpeako urbanizazioa, Sandiusterri haunditu eta kiroldegiko teniseko pista estali, 2006rako inbertsio nagusiak

Denera, 4.568.480 euroko inbertsio partidak onartu ditu Udalak 2006garren urterako, iaz baino %25 gehiago.

UDALAK eta bi Patronatuek onartu berri dituzte 2006ko aurrekontuak. Hiru erakunde-en artean 28.412.840 euroko aurrekontu kontsolidatua dute, eta horietatik 4.568.480 euroko partida dago inbertsio-tarako. Diru kopururik haundiena Sandiusterriko erresidientzia haunditzeko izango da, ia 700.000 euro denera. Egoitza haundituta, ordea, ez da printzipioz behintzat erresidientzian pertsona gehiagorentzat tokirik izango, legeak agintzen duen beharretara moldatzeko anpliazioa baita.

Oraindik proiektua bukatu gabe badago ere, Andoni Amonarraiz Ongintza buruak aurreratu du hiru alturako edificzioa izango dela (oraingoaren ondoan). Obra berriak Eguneke zentroan beste 20 pertsonentzako lekua izatea ekarriko du eta 50 toki izango dira denera. Azpiko plantan, berriz, beren kasa moldatzeko gauza diren senar-emazte eda-detuentzat apartamentuak jarriko dituzte. Azken diseinuak esango du zenbat. Obra Udala eta Diputazioaren artean finantziatuko dute. Proiektua datorren urtarrilerako egongo da eta obrak 2007an egitea espero du Patronatuak. Gainerakoan, Ongintzan 140.000 euroko inbertsioak egingo dira, batez ere ekipamenduetan.

Arrigoainpeako urbanizazioa
Auzoak berritzeko programaren barruan, Udalak 615.000 euro inbertitutako ditu datorren urtean, Santa Barbara auzoko Arrigoainpe inguru



Arrigoainpeko urbanizazioa berritzea izango da auzoetan egingo den obrarik nagusia.

guzti horretako urbanizazioa berritzen: zoruak, argia, ur-saneamenduak... Urbanizazioa berritzeko proiektua bera oraindik egiteko dago eta obrak ez dira udara aurretik hasiko, Andoni Amonarraiz Herrilan zinegotziaren esanetan.

Frontoiko teilatua berritu eta teniseko pista estali

Kiroldegian 919.000 euroko inbertsioak egitea dago aurrak 2006ko aurrekontuetan. Jakinekioa da kiroldegiko teilatua ez dagoela egoera onean

eta joan den urtean dena berritzeko proiektua egin zen. Obra fasez fase egingo da. 2006an frontoiko teilatua berrituko dute, eta teniseko pista estali. Bi lanek 775.000 euroko aurrekontua dute. 2007an, berriz, kiroldegi erdiko bi teilatu zatiak berritzea da helburua, Iñaki Barrio Kirol Patronatuko buruak Kronikari adierazi dionez. Teniseko pista estalian bi gela haundi joango dira. Batean karate, judo eta antzeko kirolak. Bestean, Barriok badu asmo jakin bat, baina erabat lotzean azalduko

Kiroldegiko teniseko pista estalita, beste bi gela joango dira. Datozen bi urteetan, Kirol Patronatuak kiroldegiko sabai osoa berritu nahi du.

2006RAKO INBERTSIO PARTIDA NAGUSIAK

Sandiusterri haunditzea	700.000 €
Arrigoainpea berritzea	615.000 €
Ur Parkea (aire libreko piszinak)	509.420 €
Kiroldegiko teniseko pista estali	456.582 €
Kiroldegiko frontoia sapaia berritu	242.000 €
Agustinak-Zinkoeneako urbanizazioa	423.000 €
Herri bideak berritu	275.000 €
Kiroldegiko teniseko pista	28.000 €
Goiz Eguzki parkea berritu	120.000 €
Kiroldegiko teniseko pista lurrea	28.000 €
Auzobideak eta kaleak	323.235 €
Etxeak egiteko lurrea	300.000 €
Zenbait udal eraikin berritu	335.513 €

300.000 euro etxebizitzak egiteko lurra erosteko

PSE-EEK eta PPK egindako zuzenketak negoziatuta etorri da partida hori. 2006rako onartu den partidarekin, Udalak 750.000 euro ditu etxeak egiteko lurra erosteko, azken urteotan horretarako gorde dena ez baita erabili.

2006rako udal aurrekontuek 300.000 euroko partida izango dute etxebizitzak egiteko lurra erosteko. Gobernuaren aurrekontu proposamenean

ez zetorren partida da eta PPK eta PSE-EEK egindako eskaririk etorri da emaitza. Berez, Alderdi Sozialistak 1.300.000 euroko partida eskatu du

(Gas Hernaniko udal partizipazioa saltzetik jasoa) eta PPK ez du kantitate jakin bat zehaztu. Azkenik, 300.000 euroko zuzenketa transakzionala egin-

da etorri da adostasuna. Oposizioaren kritikak jaso arren, azken urteetan Udalak 750.000 euroko partida dauka etxeak egiteko lurra erosteko,

aurreko urteetako partidak ez baitira erabili. Etxebizitza Sailak Arauak berritzeko prozesua jo zuen egoera horren erantzule, aurrekontuetako Plenoan. ■



Zinkoenea inguru hau berritu eta Kaxkoarekin lotuta geldituko da.

Zinkoenea berria eta Kaxkoa arteko zatia berritu eta zabor kontenedoreak lurpean sartuko dituzte

Udalak 423.000 euro gorde ditu Zinkoeneako kiosko inguru hori egokitzeke.

AGUSTINAK-Zinkoenea inguruan martxan dauden obrak bukatuta, azkeneko zati bat geldituko da zona berritzeko: Zinkoenean egin duten plaza berri horretatik Kaxkoko sarrerara bitartekoa, Kiosko inguru hori guztia. Zati hori datorren

urtean bertan egiteko asmoa du Udalak eta horretarako 423.000 euroko partida jarri du inbertsioen kapituluan. Urbanizazio lanak egiteaz gain, zabor kontenedoreak lurpean jarriko dituzte, Udalak Kronikari adierazi dionez. Obrak ez dauka epe

DATORREN UDAZKENERAKO

Urbanizazio proiektua egin eta tramitazioak pasata, datorren udazken aldera hasi litezke lanak.

zehatzik. Oraindik proiektua egiteko dago eta gero tramitazio osoa pasa behar du. Gauzak horrela, Udalak ikusten du gutxi-gora behera datorren udazken alderako etorri litekeela Zinkoenea inguru hori berrituko duen obra. ■

Ur parkea bukatzeko 509.000 euro gehiago 2006an

Ur parkearen proiektuak 2.384.000 euroko aurrekontua du eta zati haundiena iazko aurrekontuetan sartu zen.

Igerileku irekiak (orain Ur parkea da proiektuaren izendapen ofizial berria) egiteko proiektua bi fasetan ordaintzekoa zuen Udalak. Denera, 2.384.000 euroko proiektua egiten ari da dagoeneko, eta datorren urteko aurrekontuetan 509.000 euroko partida jarri du, inbertsioen kapituluan. Beste zatia, 2005eko aurrekontuan sartua dago.


Obrak dagoeneko martxan daude eta Udalaren asmoa da udara erdialderako bukatuta egotea, hori aurreratu baitio lanak egiten ari den enpresak, Udalak Kronikari adierazi dionez. Hala ere, argitu du kontratuan zehazten duela abuztua azkena dela bukatzeko epea. ■

Udara erdirako bukatzea nahi

Ur parkea udara erdirako bukatuta egon litekeela aurreratu dio enpresak Udalari, baina, kontratuan abuztu bukatzerako dago hitzartua.



Ur parke berria ari dira egiten.



Luis Llopis argazkilaria

Biyok-en argazki artxibo osoa Hernaniko herriarentzat

LUIS Llopis *Biyok* argazkilaria Hernaniko herriari utzi dio berak eta emazte zenak osatutako argazki artxibo osoa. Zalantzarik gabe, azken 50 urteetako Hernaniko historiaren lan grafikorik aberatsenetakoa. Udala aztertzen ari da orain argazki artxibo mardul hori nola antolatu eta zer erabilpen eman, eta 2006rako aurrekontuetan partida bat jaso du horretarako. ■

Beste zenbait inbertsio eta proiektu egiteko diru partidak

2006rako udal aurrekontuak beste inbertsio eta proiektu txiki asko ere biltzen ditu. Hona hemen horietako batzuk. Udaletxean, beheko plantako leihatila itxi egingo dute. Portu eta Loidi arteko argia hobetzeko partida sartua dago eta Larramendi kalean saneamendu obrak egingo dituzte.

Trafiko azterketa egiteko partida ere biltzen dute aurrekontuek, beste hainbat proiektuen azterketak egiteko bezalaxe: Santa Barbarako gotorlekua berreskuratzeko proiektua Udaletxe atzeko plaza-txoa berritu eta zabor kontenedoreak lurpean sartzekoa, Aristizabal kaleko irisgarritasuna, Mañe y Flaquer plaza, besteak beste. Antziola auzoa eta Lizeaga kaleko urbanizazioak berritzeko proiektuentzat ere badaude partidak, eta bidegorri zati berrien proiektuak egiteko ere bai. ■

Joxan Rekondo - Alkatea

«Aurrekontuak jarraitzaileak dira eta integrazio haundia lortu dute»

Rekondok azpimarratu du aurrekontuak jarraitzaileak direla, baina, auzoak eta azpiegiturak berri eta zerbitzuak hobetzeko hartutako konpromisoari eutsi egiten diotelako.

2006rako udal aurrekontuak jarraitzaileak direla adierazi du Joxan Rekondo Alkatea. Rekondok argitu du, ordea, jarraitzaileak direla auzoak eta azpiegiturak berri eta zerbitzuak hobetzeko konpromisoari eutsi egiten dielako, Kronikari adieraziaren arabera. Sandiusterrri haunditzeaz gain, auzoak berri- tzekeo prozesuaren barruan, 2006an Udalak Arrigoain- peako urbanizazioa berritzen inbertituko du diru partida garrantzitsuen. Mendi Men- dian egiten ari diren ur parke- ari dagokionez ere, Rekondok gogoratu du bi urtetan finan- tziatzeko azpiegitura zela.

Inbertsio asko «zerbitzu asko zabaldu eta hobetzeko egingo dira» Rekondoren esanetan. «Zaharren Egoitza haundituta pertsona askoren bizi kalitatea hobetu egingo da. Kiroldegian ere inbertsio haundiak egingo dira teilatua berritzen, eta tenis pista es- taltzen. Berez, horiek zerbitzu berriak izan ez arren, zer- bitzua hobetu eta zabaldu egingo dute» dio Alkatea.



Gobernuko ordezkariak. Aurrekontuen batzarrean adostasun giroa izan zen nagusi.

«Integrazio haundikoak»

2006rako udal aurrekontuak EA-EAJ eta EBren aldeko bo- toez gain, PSE-EErenak ere jaso zituen eta PP abstenitu egin zen. Alde horretatik, Joxan Rekondo Alkatea n- barmendu du «integratio maila haundiko aurrekontuak direla eta Hernaniko gehiengo adierazgarri batek onartu» dituela. Era berean, adierazi du Bildu Hernaniri aurrekon- tuen informazioa bidali zaiola eta jakinaren gainean egon

dela. BHK aurkeztutako zu- zenketaz balorazioa egingo duela iragarri du Alkatea.

Azkenik, 2006ko Aurre- kontuen gainean, Rekondok azpimarratu du bigarren ur- tez segidan urtea hasterako onartu direla, eta hori berria dela Hernaniko udalean, eta gestio onaren adierazgarri.

Patronatuak

Andoni Amonarraiz Ongin- tzako buruak nabarmendu du aurrekontu horiekin Pa-

tronatua saiatu dela ahalik eta behar sozial gehienak be- tetzen. Adibide gisa jarri du etxez etxeko laguntzan Dipu- tazioak 29.000 ordu ordain- tzen dituela eta Ongintzak 41.000 emango dituela. Bes- talde, Iñaki Barrio Kirol Patronatuko buruak nabar- mendu du «exitoa dela aurre- kontua osoko zuzenketa gabe ateratzea». Barriok azpima- rratu du bi urtean kiroldegi- ko teilatu osoa berrituko dela eta zerbitzuak haunditu. ■



Pedro Gandasegi zinegotzia.

Gandasegi (PP):
«Etxebizitza gaian eta kooperazioan adostasuna lortu dugu»

PPren ustez etxebizitza da Hernaniko gazteen eta ez hain gazteen arazo nagusia.

ALDERDI popularrak ez di- tu 2006rako aurrekontuak onartu, baina, abstenitu egin zen. Pedro Gandasegi zine- gotziak nabarmendu zuen Gobernuarekin «adostasuna lortu duela babes ofizialak egiteko lurra erostean», eta PPren ustez hain zuzen ere «etxebizitza da Hernaniko gazte eta ez hain gazteen arazo nagusia».

Bestalde, Udalak urtero zenbait dirulaguntza ematen ditu garapen bidean dauden herrialdeetako proiektuak bultzatzeko. PPK laguntza ho- rien gaineko kontrola zo- rroztea eskatu du. Gobernuak eskaria aintzat hartu eta kon- promisoa hartu du gaia ba- tzordean lantzeko.

Bestalde, Eguneke zentro- ari zegokion gaian ez da ados- tasunik izan PP eta Gobernu- aren artean eta Gandasegik kezka agertu du Udalak onar- tu dituen zenbait dirulagun- tzen gainean. Hala ere, aitortu du iazkoan ez duela irregular- tasunik aurkitu.

PPk eta PSE-EEK kritikatu dute Aurrekontuak presaka eztabaidatu direla. ■

PSE-EE: «Hobetu zitekeen Aurrekontua da batez ere, alde sozialean»

ALDERDI Sozialistarentzat 2006rako egin zitekeen Aurre- kontu hobea, baina, era bere- an iruditzen zaio konfidantza merezi duen Aurrekontua de- la. PSE-EEK batez ere alde so- zialean ikusten dio zer hobe- tua, eta hor zentratu ditu bere zuzenketak. Lau egin ditu eta lauak onartu zaizkio. Garrant- zitsuen 300.000 euroko par- tida izan da, etxebizitzak egi- teko lurra erosteko (berez, PSE-EEK 1.300.000 euroko partida eskatu zuen, Gas Hernaniko partizipazioa sal- tze trukean Udalak hartu duena). Jose Ramon Chicak adierazi zuen Udalak gaur egunean 750.000 euro dituela lurra erosteko, azken urteeta- ko partidak pilatuta, eta 450.000 sozialisten eskariz lortu direla. Chicak kritikatu



PSE-EEK aurrekontuen jarraipen zorrotza egingo duela agin du zuen plenoan.

du Udalak azken bi urteetan ez duela lurrik erosi.

Alderdi Sozialistak eska- tzen zuen beste puntuetako bat da herritarrentzat arre- taleku bat jartzea, herritar eta udalaren arteko harremanak arintzeko. Bai bulego berezi bat, eta baita interneten bidez

gestio asko egiteko aukera jartzea ere. Ideia hori lantze- ko 30.000 euroko partida sartu da Aurrekontuan.

Karabelen Renfe ondoan aparkalekua erabat bukatzeko partida haunditzea ere lortu dute sozialistek. Eta baita Energia berriztagarriak jartze-

ko politika udal erakin guztie- tan aplikatzea ere, bakar ba- tzueta jarri beharrean.

Bestalde, PSE-EEK kritika- tu du ez dagoela enplegua bultzatzeko programarik eta berak orain dela 2 urte aur- keztu zuten proposamenak ez duela erantzunik jaso. ■

BH: «Udala ondarea saltzen ari da eta ez du ezer egin etxebizitza politikan»

Bildu Hernanik Etxebizitzaren Gizarte Kontseilua sortzea proposatu du, eta alokairuzko etxebizitza parkea sortzea, promozio berrietan Udalak etxe kopuru bat erosita.

BILDU Hernanik osoko zuzenketa aurkeztu zien Plenoak onartu berri dituen aurrekontuei. BHren esanetan, «kezkatzekoa da ondarea saltzen ari delako, eta etekin horiek ez dituelako erabili etxeak egiteko lurra erosten, nahiz eta legeak berak hori bultza». Era berean, BHk begi onez ikusten du zuzenketa 300.000 euroko partida lurra erosteko gorde izana, baina, azpimarratu du aurreko aurrekontuetan etxebizitza politikari begira hartutako neurri guztiak gauzatzeko daudela. Etxebizitzaren Gizarte Kontseilua sortzea proposatu du eta alokairuzko etxe parkea osatzen joatea. Zentzu honetan, BHk dio aurrekontu neoliberalak direla «pribatizazioaren bidetik jotzen delako (Gas Hernani, bi partzela Akarregin), luraren espekulazioa ematen delako eta ez delako ekimen sozialik antzematen». Bonobusa bultzatzeko partidariak ez jasotzea ere kritikatu du.

«Ez dira demokratikoak»
Bildu Hernaniren iritziz, Udalak onartu berri dituen



BHk etxebizitzaren gizarte kontseilua sortzea proposatzen du

aurrekontuak ez dira demokratikoak. BHk salatu du Udalak, auzo elkarte batzuei itxitako aurrekontua aurkezteaz gain, ez duela herritar eta taldeei zuzendutako bilerak irekirik deitu. Gainera, azpimarratu du, aurrekontua egiteko bidean, Udalak 3.661 hernaniarren aukera politikoa baztertu egin duela, «aurrekontu hauek normaltasun batean kokatu nahi badira ere». Era berean, aurrekontua egiteko prozedura ere zalantzan jarri du BHk. «Aurrekontuen zuzenketak aurkezteko epea astelehen eguerdian bukatzen zen, eta 48 ordu baino lehen aurrekontua onartua

zegoen. Gainera, urteko ia Pleno guztiak arratsaldean izanda, aurrekontuena goizeko 09:30etan jarri dute, eta langileak garenok ordu horretan lantokian egon behar dugu. Orokorrean herritarrekiko eta BHrekiko begirune gutxi erakusten dute jokaera horiek.»

Bildu Hernaniren arabera, 2006rako aurrekontuek itxurakeriatik ere asko dute, «gobernu talde honek hauteskunde aurretik gestionatuko duen azken aurrekontua delako. BHk kritikatu du aurrekontua puztu egin dutela «gero zenbait inbertsio aurrekontutik erori egiten dira eta inork ez du ezer gehiago

jakiten zenbait proiektuetaz, hilerriaz adibidez.»

Bildu Hernanik aurrekontu herritarrek defendatu ditu, herritarren benetako beharrei erantzun dietenak. Etxebizitza politikan eta beste gai sozialetan esfortzu haundia egitea proposatu du (Bonobusa, hobari fiskala...). BHren esanetan «bi hilabete erabiliko ditugun aire libreko igerilekuak bezalako proiektuak ez ditugu begi onez ikusten, eta beste lehentasun batzuk proposatzen ditugu: kultur ekipamendu bat adibidez.»

BHk kritikatu du «herriak aukeratu ez duen Udalak 360.000 eurotik gora gastatzen dituela soldata eta dietetan.»

Landaren eta Zubipen gasa sartu eta argi instalazioa aldatuko dute

Landaren zortzi argi torreta berri jarriko dituzte. Zubipen Gureolatik sarrera ere berrituko dute.

ZUBIPE eta Landareko kirol instalazioetan zenbait berrikuntza egiteko partidak ere jasotzen ditu joan den asteazkenean onartutako aurrekontuak. Bai Landaren eta bai Zubipen gasa sartuko dute. Bestalde, Landaren, bi errugbi kanpoetan argi torre berriak jarriko dituzte. Lau bakoitzean. Zubipen, berriz, gasa sartzeaz gain, Gureola aldetik daukan sarrera berri eta ranpa-eta guzti jarriko dute. ||

350.000 euro herriko talde eta auzo elkarteentzat

DIRULAGUNTZA kontzeptuan 350.000 euro inguru jasoko dituzte herriko talde, elkarte eta auzo elkarte guztien artean, (kirol elkarteak aparte) aurrekontu berriaren arabera. Laguntza horietako batzuk zuzenekoak dira, besteak auzoetako jai eta kultur ekintzak antolatzeak. Denera, 27 talde ingururen artean banatuko dituzte laguntza horiek. ||

Ereñotzu eta Fagollaga arteko oinezko bidea

UDALAK urtero sartzen du mendi bideak edo herritik kanpoko bideak berritzeko partida bat. 2006an, 275.000 euro inbertituko ditu Udalak zeregin horretan, eta hiru bide berrituko ditu: Ereñotzu eta Fagollaga arteko oinezko bidea, Latxe-Izeneder-Bentatxuri bidea, eta Elizaldeena-Usategieta bidea. ||

Goiz Eguzki parkea berritu egingo dute, goia eta behea

2006rako udal aurrekontuek 120.000 euroko partida aurrikusi dute Goiz Eguzki parkea goi eta behe berritzeko. Azpikaldeko zatia da premiarik haundiena duena eta hor joango da 120.000 euroko inbertsioa. Lekua egokitzeaz gain, bolatokia ere jarriko dute bertan txapelketa ofizialak jokatzeko modukoa. Andoni Amonarraiz zinegotziak adierazi du proiektua eginga dagoela, beraz obrak hilabete gutxiaren buruan has-teko moduan izango dira.

Udalaren eta Ongintzaren asmoa da (bien artean finantziatuko baitute lana) parkearen goiko zatia Udaletxeko brigadak berak berritzea. ||



Goiz Eguzkiko parkea berritzeko 120.000 euroko partida aurrikusi du Udalak

Saharara jatekoa eta materiala bidaltzeko kanpaina abian da

Azukrea, atuna eta konpresak bilduko dituzte. Astelehenean bilera izango da kanpainaren ekintzak antolatzeko.

SAHARAREN aldeko 2garren Euskal Karabana mar-txan da, Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkartearen Koordinakundeak antolatuta, *Piztu Itxaropena* lelopean. Otsailean aterako da karabana Euskal Herritik eta ordu arte janaria eta materiala biltzen arituko dira, baita Hernanin ere. Aurten atuna oliotan, azukrea eta konpresak dira batez ere eskatu dituzten materialak, Argeleko Tinduf-eko saharar errefuxiatuen kanpamendura eramateko.

Ostegunetik ari dira biltzen Hernanin

Hernanin ostegunean eman zitzaion hasiera bilketari eta momentuz nahi duen guztiak materiala eramane dezake Biterira, bertan arituko baitira kanpaina hau bultzatzen duten hainbat kide bilketa lanak egiten.

Urtarrilean berriz bilketa beste zenbait lekutara zabalduko da, horrela, Hernaniko hainbat supermerkatu eta denden kanpoaldean eduki

Urtarrilean hasiko da bilketa denda eta supermerkatuetan.

ontziak jarriko dituzte. Hala ere urtarileko bilketa antolatu eta zehazteko bilera izango da astelehen honetan, arratsaldeko 19:30etan Biterin, eta arduradunek azaldu dutenez kanpaina honetan lagundu nahi duten guztiak daude gonbidatuta bilera horretara. Bilketa lanak urtarilaren 22an amaituko dira, 2garren Karabana hasi baino egun batzuk lehenago.

Janaria eta materiala ema-

teaz gain, diruz ere laguntza ematerik badago, horretarako kontu zenbaki bat ireki dute: 3035 0080 94 080005477.

2garren Karabana

Karabana otsailean abiatuko da Tinduf kanpamendura, jasotako materiala klasifikatu ostean. Horretarako Alakanteko portura garraiatuko dute guztia Udaletxeek eta erakunde publiko zein pribatuek emandako laguntzei esker erositako kamioiekin. Kamioi hauek Saharako Media Luna Rojaren parke mobila osatuko dute, lurralde hartan materiala banatu ahal izateko. ||

Tindufen 250.000 saharar daude errefuxiatuta 1975etik

1975ean Marokok *Martxa Berdearen* bidez Mendebaldeko Sahara okupatu zuen eta milaka sahararrek ihes egin behar izan zuten. Asko Argeleko Tinduf lurraldean ezarri ziren, 250.000 inguru, errefuxiatuentzako kanpamendu batean. Kanpamendu hauetan bizi direnek kanpoko laguntza dute errekurtsio nagusia. ||



Bikain okindegian saskia. Elkano kaleko eta Orkolagako Bikain okindegiek saski bana zozketatu dute beren bezeroen artean eta 5336 zenbakia atera da saritua. Elkano kalean Blanca Alberriori egokitu zaio saskia; Orkolagan berriz, Jose Antonio Marcori. Saskiak denetarik du: urdaiaz-pikoa, cava, ardoa, turroia, esparragoak, pateak, gazta, bonboiak... on egin! ||



Aitzol eta Roberto, Gazte Asanbladako mus irabazleak.

GAZTE ASANBLADA

Bilera astelehenean, ekintzak zehazteko

Gazte Asanbladak bilera du astelehenean, abenduak 26, urtarileko eski irteerari buruz eta datozen ekintzen inguruan hitz egiteko. Bilera arratsaldeko 19:30etan hasiko da Biterin. ||

DISKO JARTZAILEAK

DJ Talo eta Aritz Sound System Apeaderon

Gaur, Apeadero tabernan, DJ Talo eta Aritz Sound System izango dira musika jartzen, gau osoan. ||

TAILERRAK

Berdintasunari buruzko tailerra gizonentzat

Berdintasun Sailaren laguntzarekin, berdintasuna eta sexismoari buruzko tailerrak antolatu dituzte Biterin urtariletik martxora bitartean. Tailerra dohainik da eta arduradunek adierazi dute izena emateko epea urtarilaren 4ra arte luzatu dutela. ||

SEGI

Truke azoka gaur Gudarien plazan

Segik antolatuta truke azoka izango da gaur Gudarien plazan 17:00etatik 19:00etara *Bizitzeko kontsumitu ala kontsumitzeko* bizi lemapean. ||

GABONAK

Biteri kultur etxea

Biteri itxita egongo da gaur eta bihar eta datorren asteburuan. Urtarrilaren 5ean arratsaldean egongo da itxita eta urtarilaren 6an ere itxi egongo dute. Gaur, bihar eta datorren asteburuan ez da zinerik izango, baina, Erregeetako asteburuan (urtarrilak 5, 6 eta 7an) izango da zinea. ||

Udal Kiroldegia

Udal kiroldegia itxita egongo da gaur eta bihar, eta datorren asteburuan, Urte Zahar eta Urte Berri egunarekin. Urtarrilaren 6an, Errege eguna ere itxita egongo da. Bestalde, abenduaren 26an (datorren astelehena), igerilekuak itxita egongo dira erabiltzaileentzat, 10:00etatik 13:00etara, gazteentzako ur festa dago eta. ||

TITAN-ETXE
TABERNA

Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46 Hernani

APEADERO TABERNA

eguberri jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu.


Kardaberaz 4 © 943 330 414

LEOKA
TABERNA

Kardaberaz 3, HERNANI



Eguberri jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu!



Amegar
Etxe Tresnak



Altzariak



Txirrita Kalea 15 - Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03 - Izpizua 27


Hernanika 2006ko Egutegia

○ Ilgora

○ Ilbete

○ Ilbehera

● Ilberri

Hernanika
kronikadobEra
EUSKARA ELKARTEA

Igandea

1



8

9

10

13

14

15

Hernanika
kronika

○ Ilgora ○ Ilbete ○ Ilbehera ● Ilberri

IRAILA

AGORRA

Astelehena Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

				1	2	3
			○	8	9	10
4	5	6	7	○		
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Hernanin...

Zikuñagako Amabirjina (irailak 8)
Garagardo azoka, Sagar eta sagardo eguna,
Kultur Arteko III. Astea
Gazteen trikitixa txapelketa,
Mugarri Eguna, Alboka Festa...

Formatu berriarekin:

- Bi hilabetero Hernaniko argazki bat
- Ilargi faseak
- Urtaro aldaketak, ordu aldaketak
- Herriko ekitaldiak, herriko eta inguruko jaiak eta abar...
- Oharrak idazteko tarteak

Prezioa: 3,00 €

Gaurtik salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas,
Iruretagoiena,
Leokadisti, Plaza Berri,
Zinko-enea, Konde,
Dorronsoro, Bikain, eta
Antziola okindegian.

Adarra mendira igotzea (irailak 8)
Eusko kabalaata (Urtarrilak 5)

ANTZ PUBLIERR

ZIOLA EPORTAIA



Baserriz baserriko Olentzeroan jende askok hartu zuen parte iaz.

Olentzerok zita bat baino gehiago ditu gaur Hernanin barrena

Ikastoletako Olentzeroak irtengo dira goizean eta Baserriz baserrikoa, Parrokikoa, Ttarla dantza taldekoa, Ereñotzuko eta Musika Bandakoa arratsaldean, besteak beste.

OLENTZERO badator aurten ere eta Hernanin buelta bat baino gehiago eman beharko ditu iluntzean etxez etxeko erregalo partitza hasi aurretik. Goizean ikastolako olentzeroak ibiliko dira kalean barrena eta arratsaldean gainetako guztiak dute zita.

Baserriz baserri

Hernanin ateratzen den Olentzerorik zaharrenetakoa izango da Baserriz baserrikoa eta aurten ere urteroko buelta egingo dute trikitilariak eta Anatx eta Mendiluze bertsolariek lagunduta. Zita, arratsaldeko 15:00-etan dute, Gudarien plazan.

Baserriz baserriko Olentzeroa Harriburni inguruan sortu zen 70garren hamarkadan eta geroztik urtero atera izan dira Osiñaga inguruko baserrietara. Urtero bertsolariak izaten dira eta Osiñagako Anatx baserriko Joxe Mari Mujika ia urtero atera izan da. Aspaldiko erronda honetan parte hartu nahi duen guztiak gaur du zita.

Parrokiko abesbatza

Parrokiko abesbatza Gabonetako kantak kantatzen aterako da kalez kale gaur. Irteera arratsaldeko 17:30etan izango dute Izipua Kaletik.

Olentzero Konpartsa

Olentzero Konpartsak antolatuta karrozan ibiliko da Olentzero gaur kalean barrena. Arratsaldeko 16:00etan Zaharren Egoitzara joateko asmoa dute eta bertan opariak banatuko dituzte. Arratsaldeko 18:00etan, berriz, plazara joango da Olentzero eta bertan txalapartariak eta Ttarla dantza taldeko gazteek ongi etorria egingo diote. Ondorenean, Udaletxeko balkoira igoko da Olentzero eta Pako Zabaleta eta Maitere Azurmendik herriko giltzak emango dizkiote, Alkate eta Alkatesa paperean. Behin herri aurrean azalduta, kale buelta egingo du Olentzerok karrozan eta arkupetan, herriko umeen kartak jaso eta opariak banatuko dizkie.

Ereñotzun barrena

Ereñotzun ere ibiliko da gaur Olentzero kantuan etxez etxe. Askatsutik Lastaolara bitarteko etxerik gehienak bisitatuko dituzte. Ereñotzuko plazatik aterako dira eguerdiko 13:30etan.

Musika banda eta Kantuz

Musika Bandak eta Kantuz Abesbatzak kontzertu sakroa eskainiko dute gaur Milagrosan, 20:00etatik aurrera. Urtero Kantuzek egiten duen kontzertua da hau, baina, aurten Musika Bandarekin batean egingo du, eta kantua eta musika entzuteko aukera izango da. Guztira 11 kanta izango dira gaur: lehen zazpiak Kantuzek eskainiko ditu. Kantuetan bosgarrena, Aloñamendian, J. Olaizola Kantuzeko kideak egingo da eta gaur dute estreinatzea. Hurrengo biak Musika Bandak joko ditu eta azken biak (Gospel train eta Oi Betlehem-en) batera eskainiko dituzte. Gaurko bi obraren moldaketak Xabi Izagirre Musika Bandako kideak egingo dira. ■



Olentzero pronto dago kale buelta egiteko.

Gabonen bueltan gaztetxoentzako egitarau berezia Hernanin

Gabonak Jolasean izenarekin gazteentzako jolas eta denbora pasak antolatu dituzte Udaleko sail desberdinek. Astelehenean, Ur festa izango da Kiroldegiko igerilekuan.

GABONEN bueltan ez dute aspertzeko denbora askorik izango Hernaniko umeek, Udaleko sail desberdinek egitarau berezia prestatu baitute berentzat. Astelehenean bertan ur festa izango da kiroldegiko igerilekuan, 4-12 urte arteko gazteentzat. Jolasak igerileku haundian eta igerileku txikian izango dira eta jostailu, puzgarri eta gainerakoak izango dira gusto duten gazte guztientzat. Horrez gain, kirola gustoko dutenek asteartean ere izango dute aukera kiroldegiko frontoian, barrene herrikoia jokatu baita, 6-12 urte arteko gazteentzat.

Asteartean bertan, Lur Korta ipui kontalaria etorriko da Biteriko udal liburutegira, gaztetxoentzako ipuiak kontatzera. Urtarrilaren 3an ere ipui kontalariak izango dira liburutegian, Kontu Kantoi taldearen eskutik.

Kontsumo arduratsua

Kontsumo arduratsuaren inguruko jolasa izango da hilaren 28, 29 eta 30ean, Ingu-rumen saila eta Artelatz taldearen eskutik. Tribial moduko tablero erraldoi bat jarriko dute eta kontsumoari buruzko galderak erantzun eta froga batzuk pasa beharko dituzte, ur botila txiki batekin, edo brik baten zilarrezko aldearekin egiteko, besteak beste. Kontsumoa, publizitatea, birziklatzea eta berrerabilera bezalako gaiak jorratuko dituzte jolasen bidez. Izen ematea dagoeneko egin dute ikastetxeetan eta adin desberdinetako gazteak hartu ahal izango dute parte.

Umeentzako jolasak

Euskera zerbitzuaren eskutik jolasak izango dira, urtarrilaren 2 eta 3an, 5 urtetik gorako gaztetxoentzat. Tailerrak izango dituzte besteak beste eta monitoreak ariko dira jolas horiek organizatu eta girotzen. Kontsumo arduratsuaren jolasa eta umeentzako jolasak non izango diren ez dago oraindik erabat garbi, hasiera batean kanpoan egitekoak baitzituzten, baina, egunotako hotzak ikusita barruan egiteko modua bilatu nahian dabilta.



Gaztetxoek astelehenean dute uretan jolas egiteko aukera.

Astelehenean igerilekuan dago festa eta asteartean kiroldegiko pelotalekuan

Betimu ikuskizuna

Betizuak Izar Artean ikuskizuna eskainiko du urtarrilaren 4an Betimu taldeak. Betimu taldeko lau behiek, galaxia osora zabaldu nahi dute beren musika eta abentura berri horretan Arrati lagun izango dute, Beizarren bakarrik ez baitzuen gelditu nahi. 10 urte arteko gaztetxoentzako ikuskizuna da eta ordubete inguruko iraupena izango du ikuskizunak.

Errege kabalgata

Urteroko moduan, Errege bezperan kabalgata izango da Hernanin barrena, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek opari ugari dakarzkite aurtan ere herriko gaztetxoei eman ahal izateko. ■



Marsel magoa Sandiusterrin

Urtarrilaren 4an Marsel mago hernaniarra herrian bertan ikusteko aukera izango da, arratsaldeko 17:00etan. Etxeberriko magoa gero eta famatuago ari da egiten, izan ere ibilbide luzea egin baitu dagoeneko magia mundu misteriotsu honetan. ■

► Egitaraua

Abenduak 26, astelehena

Ur Festa, igerilekuan
10:00-13:00 igerileku haundian
10:00-12:00 igerileku txikian

Abenduak 27, asteartea

Ipui kontalaria, Biterin
11:00-11:30 3-4 urtekoentzat
11:30-12:00 5-7 urtekoentzat

Barrene herrikoia, kiroldegiko pelotalekuan
16:00etan, 6-12 urtekoentzat

Abenduak 28, asteazkena

Kontsumo arduratsuaren jolasa, Atsegindegian
11:00-13:00 LH 3-4 mailak
16:30-18:30 DBH 1-2 mailak

Abenduak 29, osteguna

Kontsumo arduratsuaren jolasa, Atsegindegian
11:00-13:00 LH 5-6 mailak
16:30-18:30 DBH 3-4 mailak

Abenduak 30, ostirala

Kontsumo arduratsuaren jolasa, Atsegindegian
11:00-13:00 LH 5-6 mailak

Marsel Magoa, Sandiusterrin
Arratsaldeko 17:00.

Urtarrilak 2, astelehena

Jolasak, Atsegindegian
17:00, 5 urtetik gorakoentzat

Urtarrilak 3, asteartea

Ipui kontalaria, Biterin
11:00-11:30 3-4 urtekoentzat
11:30-12:00 5-7 urtekoentzat

Jolasak, Atsegindegian
17:00, 5 urtetik gorakoentzat

Urtarrilak 4, asteazkena

Betimu ikuskizuna, Atsegindegian
Arratsaldeko 17:00etan

Urtarrilak 5, osteguna

Errege Kabalgata
Arratsaldeko 18:00etan

Urtarrilak 7 eta 8, larunbata eta igandea
Zinea

BURUNTZALDEKO UDALEK HITZARMENA SINATU DUTE EUSKADIKO KUTXAREKIN

Finantza erakundeak ere, euskaraz

Orain hiru urte pasatxo sinatutako hitzarmena berritu dute Buruntzaldeko Udalek eta Euskadiko Kutxa finantza erakundeak. Ekimen zehatzak eta eraginkorrak erabiliz, euskararen

erabilera areagotzeko konpromisoa hartu du Euskadiko Kutxak. Abenduaren hemeretziaren Euskadiko Kutxak Donostian duen egoitzan sinatu zen hitzarmena.

Harategiak, arrandegiak, jatetxeak, lanbide heziketa jorrazten duten ikastetxeak... euskararekiko konpromisoa hartzen ari diren jarduerak ugari dira Buruntzaldean. Udaletako euskara batzordeak finantza erakundeen artean ere ate joka ari dira eta, hasteko, Euskadiko Kutxarekin hitzarmena sinatu berri dute.

Euskararen erabilera areagotzeko lau urteko hitzarmena sinatu dute Buruntzaldeko Udalek eta Euskadiko Kutxak. Eskualde euskaldunenetan euskarak trataera berezia behar duela adierazi dute hitzarmenaren sinatzaileek, "sozio-linguistikoki euskaldunak gehiago diren eremuetan euskararen erabilera ere halakoa izan dadin eskatzen baitu".

HITZARMEN BERRIA, AURRERAPASUA

Hitzarmen hau aurrerapausu bat da, 2002ko apirilaren 22an erakunde eta instituzio hauek sinatu zuten akordioarekin alderatuz gero. Erabilera zabalduta eta indartu egingo baita hitzarmen berriarekin. Nola? Bada, oso ekimen zehatz eta eraginkorrek. Hona hemen adierazlerik garrantzitsuenak:

- Bezeroari lehen hitza euskaraz egingo zaio.
- Lehen libreta, kontu edo txartela irekitzerakoan azalpenak euskaraz eman eta txartela euskaraz erabiltzea eskainiko zaio. Gazteei bereziki.
- Sukurtsalean bertan idatzitako dokumentuetan euskarari lehentasuna emango zaio. Kanpotik etorritako erdarazko propaganda ez da ikusgai jarriko.
- Kontuetan erregistratu eta idazteko eragiketak, langileak idatzi behar dituenean, euskaraz idatziko dira.



Hitzarmenaren sinatzaileak.

' Aiurri

Hitzarmen berria aurrerapausu bat da, euskararen erabilera zabalduta eta indartu egingo baita

- Euskadiko Kutxak sortzen dituen publizitate slogan edo gisakoak euskaraz sortuko dira, gaztelaniaz sinatutakoen itzulpen soil eta kaxkarrak izan ez daitezzen.

EUSKARAREN ERABILERA

Bakoitzaren betebeharrak ondo lotuta geratu dira. Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeak hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko dira. Eta, gainera, euskararen erabilera gehitzeko lanean jardungo dira. Euskadiko Kutxak, bere aldetik, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera neurtzeko baliabideak ipiniko ditu.

Konpromisoa eraginkorra

izan dadin, hitzarmenaren sinatzaileek jarraipen batzordea sortuko dute, hitzartutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko.

Euskadiko Kutxarekin hitzarturiko sinadura-ekitaldian Usurbilgo udal ordezkariak ez ziren egon. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko iza-

Konpromisoa eraginkorra izan dadin, hitzarmenaren sinatzaileek jarraipen batzordea sortuko dute

tean (UEMA), dagoeneko sinatuta dute oso antzekoa den hitzarmena.



Euskadiko Kutxak ahozko zein idatzizko erabilera neurtzeko baliabideak ipiniko ditu.

EUSKARAREN ALDE



FINANTZA ERAKUNDEAK, PIXKANAKA BADA ERE, AURRERA

Kontu korranteak, diru mugimenduak, inbertsioak, maileguak... Gizarte osoak harreman estua dauka finantza erakundeekin. Pixkanaka bada ere, erakunde hauek euskararen erabilaren garrantziaz ohartzen ari dira. Hauen betebeharrak bada euskaldun orok dituen hizkuntz eskubideak bermatzea.

Kutxak euskara plana badu eta zenbait udalerritan lan eraginkorra egiten ari da. Adibide bat jartzearen, Zestoako Kutxako bulegoak euskara modu duinean erabiltzeko ardura hartu du.

Oro har, beste erakundeetan, euskara kontuan hartzen duten kasuak egon badira. Ez asko, egia esan. Baina etorkizun oparo baten aurrekariak izan daitezke. Nafarroan, Caja Rural erakundeak Etxarriko Udalarekin euskara erabiltzeko konpromisoa hartu du.

Caixa, BBVA, Banco Guipuzcoano... euskara planik ez dute baina publizitatea egiteko orduan euskara erabiltzen dute. Ez da nahikoa, baina bada zerbait.



Finantza mugimenduak, maileguak, inbertsioak,... Jarduera hori lantzen duten **erakundeekin** euskara erabiltzeko **harremanak** sustatu dituzte **euskaraz** bizitzeko konpromiso irmoa duten Buruntzaldeko Udaletako Euskara Batzordeek



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskara Batzordeak

'Urte Zaharra III. Torneoa' datorren astean Hernanin, Atletiko eta La Salleren aurka

Datorren ostegunean Atletikoren kontra jokatuko dute alebin, infantil eta juniorrek eta ostiralean La Salleko taldearen kontra. Bestalde, saskibaloit taldeak dei egin die 1992 eta 1993an jaiotakoei.

HERNANIKO saskibaloit taldeek Urte Zaharretako torneoa jokatuko dute datorren ostegun eta ostiral arratsaldean. Ostiralean, Atletiko San Sebastian taldearen kontra jokatuko dute Hernaniko taldeek: 16:30etan alebinek; 18:00etan infantilek; eta 19:45etan juniorrek. Ostiralean, berriz, La Salleko taldeen

kontra jokatuko dute: arratsaldeko 16:30etan alebinek; 18:00etan infantilek; eta 19:45etan juniorrek. Juniorren kasuan Udaberriko Kopa irabazi berri dute hernaniarrek eta animoz beteta daude ligari ekiteko. Txapelketa honek balio lezake hernaniarrak zein mailatan dauden ikusteko.

Mutil gazteei deia

Hernaniko saskibaloit taldeak dei egin die 1992an eta 1993an jaiotako mutilei, saskibaloia gustoko badute taldera animatzeko. Kirol hau gustoko izan edo proba egin nahi dutenek deitu taldeko arduradunei: 618 44 85 33 telefonora. ■

◆ ERRUGBIA



Errugbi eskolako jokalaria eta entrenatzaileak, Ordizian.

Hernaniko lehen taldeak balorazio gazi-goza egin du lehen 5 partiduetaz

Jokatutako 5 partiduetatik 3 irabazi dituzte, baina, Gernikan irabazi zezaketelakoan daude. Gainerako taldeak bikain.

HERNANIKO lehen taldea sailkapeneko 5garren postuan dijoa, jokatutako bost partiduetatik hiru irabazita (Valentzia partidu bat gehiago jokatuta dago aurretik), baina, Gernikan ere irabazi zezaketen sentsazioarekin. Iraola eta Elosegik zuzentzen dituzten mutilek erakutsi dute kategoria honetan ondo ibiltzeko maila daukatela eta edozein talderi emango diotela gerra. Lehen itzulia bukatzeko bi partidu falta dituzte hernaniarrek: lehenengoa urtarilaren 8an izango da Landaren bertan, Oviedoren kontra, eta hurrengo asteburuan, Valentzia jokatuko dute CAU Valenciaren kontra. Bi partidu hauetan hernaniarrek sailkapenean goiko muturrean ibiltzeko zein aukera izan ditzaketen nabarmendu liteke.

Zazpi partidu jarraian

Errugbi taldeak partidu gutxi jokatu ditu ligan orain artean, deskantsu eta atzerapen dezentziaz baitituzte. Urtarrilaren 8tik aurrera, ordea, 7 partidu jarraian jokatu dituzte eta bi hilabete horietan erabakiko da liga parte haundi bat. Mentalizatu beharra daukate hernaniarrek liga zati honi buru belarri ekiteko, gauza haundiak egin ditzaketela erakusten ari baitira, orain artetakoan.

Jubenilak nagusi

Jubenilen taldea ere denboraldi borobila ari da egiten eta bere taldean erraz dijoa lider, jokatutako partidu guztiak irabazita. Beste taldean Getxo dijoa lider eta horiek izango dituzte kontrario gogorrenak Euskal Herriko Txapelketan. Nagusi-

en mailako bigarren taldea ere nahiko txukun dabil eta bigarren dijoa beren ligan. Kade-teak, txapelaren lehiara sailkatzeko aukerarik gabe gelditu dira, sailkapeneko erdi aldean baitijoaz. Hala ere, txukun ibili dira.

Errugbi eskola primeran

Eskolarretan oso sendo dabil-tza hernaniarrak. Asteburuan Trebijanonek jokatu zuten eta benjaminek Ordiziari 15-35 eta Quesos Valladolidi 15-35 irabazi zioten; Bera Beraren aurka 30-30 berdindu zuen Hernanik. Albinek, berriz, jokatutako hiru partiduetatik irabazi zituzten 5-25, 5-10 eta 5-10 Ordizia, Bera Bera eta Quesos Valladolid taldeen aurka eta infantiletan Ordizia eta Bera Berari 5-15 eta 0-10 irabazi zioten eta Quesosek 15-5 irabazi zien hernaniarrei. ■

◆ PELOTA - KRONIKA TXAPELKETA

Aurreko asteburuan atzeratutako finala gaur Tilosetan

Kronika pelota txapelketako finala eta 3-4 postuak jokatu dira gaur Tilosetan, eguerdiko 12:00etan. 3-4 postua Legarreta eta Ruiz de Galarretak jokatu dute elkarren kontra eta ondorenean izango da finala, Nabarte eta Apezetxearen artean. Bi partidu hauek aurreko asteburuan jokatzeak ziren, baina, atzeratu egin ziren eguraldiagatik. ■

◆ ERREMONTA

Faustino torneoko lehen finalaurrekoa gaur arratsaldeko jaialdian, Galarretan: Ezkurra-Ion / Bitoria-Lizaso

Galarretan erremonte jaialdi primerakoa dago gaur, Faustino torneoko finalaurreko eta guzti. Ezkurra eta Ion Bitoria eta Lizasoren kontra jokatu dute, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdian. Beste partiduetatik dira: Matxin IV-Martinez I/Zalakain-Gaztelu, Juaristi-Eizagirre/Altuna I-Etxeberria III eta Iribarren-Urko/Agirresarobe-Badiola. ■

◆ ASTIGARRAGA

Abenduaren 28an Euskal Selekzioa ikustera joateko autobusak Astigarragatik

Euskadiko futbol selekzioak eta Kamerungoak jokatu dute, abenduaren 28an, San Mameseko zelaian. Astigarragako Gazte Asanbladak autobusak atera ditu bertara joan ahal izateko. Autobuserako Txartelak salgai daude Astigarragako Zipotza tabernan, futbol partidu haundi hau ikustera joan nahi duen guztiarentzat. ■

**SANTA BARBARA**
PEUGEOT
☎ 943 55 11 39 / 943 33 15 90
Exposizioa: Aranzazu 15 - Tailerra: Larramendi 15



- Peugeot 206 HDI Klima	--- km 0.0 ---	13.300 €
- Opel Zafira	--- Turbo diesela, aire egokitua ---	10.800 €
- Peugeot 206	--- Diesela A.A ---	7.500 €
- Rower 420	--- Turbo diesela ---	5.500 €
- Peugeot 406	--- Turbo diesela ---	3.900 €
- Renault Clio	--- Diesela ---	2.800 €
- Fiat 1	--- Diesela ---	1.885 €

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu



Hernaniko jokalaria bat baloia borrokatzen, Zubipen.

Hernanik Zubipen jokatu du gaur Zestoaren kontra, etxeko puntuen gosez

Partidua arratsaldeko 16:30etan da. Jubenilek Labaien
torneoko finala dute, 11:30etan Zubipen.

GORENKO mailako taldeak bakarrik izango du gaur liga-ko partidua, 16:30etatik aurrera, Zubipen. Zestoako taldea hartu dute txuriberdeek, hiru puntuak etxean uzteko helburuarekin. Hernani nahiko bolada onean dabil, azken jardunaldian Aretxabaletan galdu bazuen ere, baina, sailkapenean gora egin nahi badu etxeko puntuak atera beharra dauka. Zestoa aurkari zuzen-zuzena du Hernanik aurtengo ligan, 4 puntu gehiagorekin baitaude Urola bailarakoak sailkapen erdian.

Behetik gora

Hernani behetik gora dijoan taldea da aurtengo ligan eta azkena joatetik sailkapen erdian begira jartzera pasa da. Ricardo Ramos lehendakariak aldaketa hau azpimarratu dio Kronikari eta taldea gero eta hobeto ikusten du. Dena den, ezin dela relajatu uste du lehendakariak, "berdintasun haundia baitago liga honetan". Taldeari etorkizun haundia

ikusten dio Ramosek, oraindik oso gaztea baita, baina, esperientzia hartzen ari dena.

Labaien finala

Jubenilen taldeak gaur goizean jokatu du Labaien torneoko finala, 11:30etan Zubipen, Real Sociedad taldearen aurka. Finalaurrekoan, 1-0 irabazi zion Hernanik Lehengokoak taldeari eta 1-0 Errealak Añorgari. Iazko txapelketa Errealak irabazi zuen, finalean Añorgari irabazita eta gaur ere faborito izango dira. Hala ere, hernaniarrak ez daude torneoa eramaten uzteko eta borrokarako prest aterako dira Zubipera.

Gainerako taldeetan denetik
Gainerako taldeen ligako martxari begiratuta gazteen 1 maila eta kadeteen 1 mailako mutilen taldeak dijoaz 4 eta 3garren, hurrenez hurren. Horrez gain, F-8ko neskek ere denboraldi ona ari dute, txapelketa jokatzeko fasera sailkatuta baitaude. Momentu honetan 5garren dijoaz. II

Mailaz maila

Gorengo maila

Hernani 15garren dijoa, 19 punturekin

Gazteen Liga Nazionala

Hernani 9garren dijoa, 19 punturekin

Gazteen 1 maila

Hernani 4garren dijoa, 31 punturekin

Kadeteak F 8

Hernani 5garren dijoa txapela jokatzeko fasean, 3 punturekin

Kadeteen ohorezko liga

Hernani 7garren dijoa, 17 punturekin

Kadeteen 1 maila

Hernani 3garren dijoa, 16 punturekin

Infantil 1 maila

Hernani 3garren dijoa, 20 punturekin

Infantil txikiak

Hernani 9garren dijoa, puntu batekin.

† ANTONI MENDILUZE ETXEBERRIA

ANDREA

(MILIAN REKONDORREN ALARGUNA)

Herenegun hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren

- Goian bego -

Seme-alabak: Luis Antonio, Mari Carmen eta Ceferino Ormazabal, Maria Mercedes, Ana Belen eta Juan Antonio Gallego; biloba: Amaia Ormazabal; eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **ETZI, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Hernaniko **JUAN BATAIATZAILEAREN** parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 24an

Helbidea: Kale Nagusia, 23-2

OHARRA: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIO berrian (Kiroldegiaren ondoan) egongo da, gaur larunbata, eguerdiko 12:30ak arte.

I. URTEURRENA

Julia Lalaguna Ezpeleta

2004ko abenduaren 5ean hil zen, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartuta.

-Goian Bego-

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO, AMA.

Senarra: Ascensio Amilleta Izagirre; seme-alabak: Francisco, Jose Ignacio eta Marivi, Jose Manuel eta Laura, Asensio eta M^aDolores; bilobak: Unai eta Angels; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela BIHAR IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Alde Aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 24an

Helbidea: Oarso, 2-2^o-C

LEHENENGO URTEBETETZEA

Inaxio Setien Azpeitia

JAUNA

2004ko abenduaren 21ean hil zen, Hernanin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian Bego-

Zure emaztea, semeak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela BIHAR IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Alde Aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 24an



I. URTEURRENA

Felix Aranburu Arbiza

2004ko abenduaren 11ean hil zen

- Goian Bego-

Felix hil zela urtea bete den honetan, familiakoek urteurreneko meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Urteurreneko meza **bihar, abenduak 25, goizeko 11:00etan**, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parrokian.

Hernanin, 2005eko abenduaren 24an

I. URTEURRENA

Joxe Igarritz Etxeberria

2004 / XII / 25

(Marta Igarritz Euskal Preso Politikoaen aita)

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu bihotzean.

Asko maite zaitugu. Etxekoak.

Meza, San Juan Bataiatzailearen Parrokian, abenduaren 25ean, 11:00etan. HERNANI 2005

☎ **TELEFONOAK** : Taxiak: 943 550093 : Udaltzaingoa: 943 333288 : **DYA**: 943 464622
: **Autobusak**: 943 556662 : **Anbulatorioa**: 943 006666 : **Jokalari anonimoak**: 943 331103
: **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103 : **FARMAZIAK** : **GAUR ETA BIHAR**
: **Egunez: Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 : **Gauetz: Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Aste guztian izan dugun eguraldi berberak jarraituko du. Goizean izotza eta gainerakoan eguzkia. Haizeak hego-ekialdetik joko du eta tenperaturak ez du aldaketarik izango.

BIHAR Bihar tankera berdinean. Tenperaturak ez du aldaketa nabarmenik izango, baina bali-teke zeruan laino gehiago azaltzea.

(euskalmet)



Karta jokoen sari banaketa Goiz Eguzkiko lore tokian egin zen.

Santo Tomas, trofeo eta txistorra artean

HERNANIKO Santo Tomasek ez du Donostiakoaren inbiriarik izateko aitzakiarik. Egun

ederra izan zen herriko leku askotan. Jubilatutxoan esaterako, udazkeneko karta jokoe-

tako trofeo banaketa izan zen (mus, tute, eskoba, puntto, bilar klasikoa eta bilar amerikanoa), ondoren jubilatutxo guztiek txistorra ogitarrean jateko aukera izan zuten.



Barazkiak, arrautzak, fruta... denetarik salgai Inmaculadan.

Inmaculadan azoka paregabea

Inmaculada ikastetxean urtero bezala Santo Tomas azoka antolatu zuten. Bertan barazki eta baserriko produktuak izan ziren salgai. Horretaz gain *Merkatu Txikia* ere izan zen, bertatik ateratako dirua Santo Domingora bidaliko dute. Taloa eta txistorra jaterik izan zen Inmaculadan eta txerrikume bat jarri zuten azokako errege. II

LEHENENGO URTEBETETZEA

Feliciano Setien Setien

(NICOLAS GARAYAR-EN ALARGUNA)

2004ko abenduaren 31ean hil zen Hernanin, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartuta.

-Goian Bego-

Feliciano hil zela urtea bete den honetan, familiakoek urteurrenko meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Haren animaren alde oitox bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte BIHAR IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Alde Aurretik, mila esker.

Helbidea: Lau-Bidieta etxea **Hernanin, 2005eko abenduaren 24an**



LEHENENGO URTEBETETZEA

Manoli Arrue Amonarraiz

(PEDRO ZABALAREN ALARGUNA)

2004ko abenduaren 13an hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartuta.

-Goian Bego-

Manoliren hil zela urtea bete den honetan, familiakoek urteurrenko meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Haren animaren alde oitox bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte BIHAR IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Alde Aurretik, mila esker.

Helbidea: Izpizua, 15-1 B **Hernanin, 2005eko abenduaren 24an**



† JULIAN PELLEJERO PAS-

TOR

JAUNA

Atzo hil zen, 52 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

- Goian bego -

Emaztea: Ina Erkizia; semea: Julen; amaginarreba: Venancia Bengoetxea; anai-arrebak: Jose Angel eta Cristina, Monserrat eta Enrique; ezkon anai-arrebak, izeba-osabak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde oitox bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **ETZI, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Floridako **JOSE LANGILE DONEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 24an



Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua



Ford kontzesionario ofiziala

ORDUTEGIA:
ASTEAN: 9 - 13
16 - 20
LARUNBATEAN: 10 - 13

Antziola auzoa 12 ☎ 943 55 57 72 **HERNANI**

ARALAR



GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
☎ 943 33 15 06

OHARRA

Gainerako eskelak 15. orrialdean.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15